

# TRAS EL NOMBRAMIENTO DE LOS TRES NUEVOS OBISPOS

## QUE IGLESIA QUEREMOS EN EUSKALHERRIA

Los últimos nombramientos de obispos para Euskal Herria ponen en tela de juicio no ya el nombramiento de uno u otro obispo sino el procedimiento mismo.

Partiendo de la triple misión de Cristo en la tierra se pueden distinguir tres tipos de eclesiología:

- *Eclesiología de la institución:* Aquella en la que unos miembros segregados del pueblo por la consagración, tienen la misión de salvar al pueblo. Políticamente correspondería a la democracia orgánica o dictadura.
- *Eclesiología de la representación:* Aquella en la que unos miembros provenientes del pueblo hacen de puente entre éste y Dios. Políticamente corresponde a la democracia parlamentaria o burguesa.
- *Eclesiología de la participación:* Aquella en la que el pueblo elige y controla a sus guías y participa en la vida total de la Iglesia. Políticamente equivaldría a la democracia popular. Parece que el Concilio tiende hacia esta estructura eclesial. Y así, desde luego, debería ser la Iglesia Popular Vasca, fundada en Dios y en la base del pueblo cristiano.

## NOLAKO ELIZA NAHI DUGU EUSKAL HERRIAN?

Egunkarian irakurri dugu. Bizkaiko Seminaristak apezpiku berriaren aurka dau-de, bera hautatzean kristau herriak eskuhar-tu ez duelako. Horregatik bere kargu berri-ri uko egiteko eskatzen diote.

Gero Bilboko apezpiku laguntzaileak homilia bat egin du. Eta zera eskatzen du: Apezpiku berria oso-osorik onartzeko.

Ondoren beste hau ere esaten du: "Bizkaiko kristau herriak zalantzarik gabe onartzen du gaur, eta laister, hobetoxeago ezagutu-ko duenean (nik neuk ezagutzen dudan be-zala), benetan maitatuko du"

Seminaristek ez dute ezer — eta beste inor gutxi edukiko du — Luis Maria Larrea-ren aurka, ezagutu ere oso gutxi ezagutzen dutelako. Baina koska hortxe dago, hain zuzen ere: kristau herriak ezagutu ere eza-gutzen ez duen gizon bat onartu behar due-la, bere apezpiku bezala. Horregatik, zen-baiten zalantzak eta kontraegoteak ez dira apezpiku horren edo haren aurka, eta bai apezpiku hori eta hura izendatzeko proze-duraren kontra.

Hiru apezpiku berri izendatu dituzte: Bizkairako, Arabarako eta Gipuzkoarako. Orain dela urtebeteren bat, izendatu zuten Iruineakoa. Laurotan prozedura berdintsua erabili dute. Batean, ezagunagoa zen gizo-na bere eliztarrentzat: Setien, esate batera-

ko; bestean ezezagunagoa. Baina Euskal Elizari (hegoaldekoari) "eman" dizkioten apezpiku berriak —denak—, bide beretik etorri zaizkio.

Eta martxo honetan azken hirurek hartuko dute nork bere postua. Eta seguru asko, urte batzutarako Euskal Elizaren (he-goaldekoaren) goi-hierarkia finkaturik geldituko da.

Zalantzarik ez dago, azken izendape-

nok zuzeneko asmo hau izan dutela: Euskal Eliz Probintzia eratzea, Iruineko Artzapezpi-kua buru dela. Aspalditiko eskabidea da horixe; apezpikuek beraiek ere agindua dute; indar politiko eta sozial nafaristek eta zentralistek asmo horri bidea ebaki nahi izan diote, eta oraindik ere burruka egiteko prest egongo dira. Baina Elizak ez ahal du galdu-ko bere askatasuna presio guzti horien era-ginpean! Hainbat euskal kristauren espe-



rantza pittintxoia lurperatzea izango litza-teke horixe.

Euskal Eliz probintzia bidetan dela esan dezakegu; kristau herriaren eta hierarkiaren aldetik Euskal Eliza ere bideratuz doala esan genezake. Baina nolako Eliza nahi dugu?. Nolako Eliza izango da Euskal Eliza?

Aipaturiko apezpikuen izendapenek gogoeta batzu egitera bultzatzen gaituzte.

## 1. Jesukristo gizonen ordezeko, bitarteko ala tarteko?

Testamentu Berrian bertan era batera baino gehiagotara adierazten da Jesukristo-ren misioa gizonen aurrean. Bereziki hiru adierazkera hauek nabari dira:



a) Jesus gizonen **ordezeko** da Jainkoaren aurrean: gizonen **ordez** bere bizia ematen du. Ordezkatza edo "sustituzio" horren bidez salbatzen ditu gizonak.

b) Jesus Jainkoaren eta gizonen **bitarteko** da. Bereziki goratua izan denetik, bere **bitartekotza** edo "mediazioa" betetzen du, gizonen errepresentazio bezala.

c) Jesus gizonen **tartekoa** da: Jainkoa gizonen **tartean** bizi da Jesusengan, horien adiskide bezala; etengabeko bere **tartekotzaz** edo "presentziaz" salbatzen ditu gizonak.

Hiru eskema hauk bizi dira Kristologian. Eta hiru eskemok pasa dira Eklesiologiara ere.

## 2. Hiru Eliz eredu

Seguru asko hiru eredu hauk bata bestearen ondoan ari dira Elizaren "autoizai-eran" (autorrealización) eta "autoadieran" (autocomprensión). Horietan Elizaren egitura—modua hiru eratara agertzen da. Ho-

nela izendatuko ditugu hiru ereduok: **Ordezkatza** Eliza (Eclesiología de la sustitución), **Bitartekotza** Eliza (Eclesiología de la representación), **Partaidetza** Eliza (Eclesiología de la participación)

a) **Ordezkatza Eliza**. Honelako ereduari, Eliza ofizialak (hierarkiarena, apaizena, erlijiosoena...) aparatu autonomo bezala funtzionatzen du; kristau herria, bestalde, pasibotasunean bizi da: aparatu ofizialetik aparte bezala. Herri honen "salbamaena" Eliza ofizialaren bizkarretan gelditzen da. Eliz aparatu ofizialak ba ditu bere sistema autonomoak agintariak eta gidariak hautatzeko eta izendatzeko. Horik kristau herriatik **atereak** dira: Goitik atereak nolabait, eta Eliz aparatuan sartuak, sagarakuntzaren bidez.

Ordezkatza Eliza horren sinbolo be-

Azken Kontzilioak kristau herriaren partaidetza indartu nahi izan zuen Eliz baren: Liturgian eta Diozasetako eta Parrokietako batzordeetan konkretatu nahi izan du partaidetza hori. Hala ere, gaurko Elizaren bitartekotza eredu (modelo de la Eclesiología de la representación) da nagusi. Partaidetza bera erę erabat hierarkiaren eta Eliz aparatuen kontrolpean dago. Bitartekotza ordezkotza eredu eta partaidetza eredu oreka-unea izan nahi du; baina sarritan, gaurko Elizaren egiturari, ordezkotza eredu aldera makurtzen da.

Zein Eliz eredu nahi dugu gaurko Euskal Herrian?

Apezpikuen azken izendapenek gehiago adierazten dute Ordezkatza Eklesiologia, Partaidetza baino. Eliz aparatuek bere aldetik eta era autonomoan funtzionatu du; kristau herriak ez du parterik izan.

## 3. Euskal Eliza herritarra

Ohar eskematiko hauk burutu aurretik, agiri bat irakurri ahal izan dut (DEIA, martxoak 14): "Carta abierta de comunidades cristianas de Vizcaya al nuevo obispo de Bilbao".

Besteren artean hauxe esaten dute: "Valoramos como hecho positivo el que los nuevos obispos de Bilbao, San Sebastian y Vitoria sean naturales del País, aunque no lo consideramos suficiente; es necesario, además, impulsar una Iglesia popular".

Eliza herritarra... Jainkoatiarra da Eliza, ala ez da ezer! Baina Jainkoaren **Herria** da Eliza, ala aparatu burokratiko hutsa da.

Herriaren **ordez** agintzen dute agintariak "demokrazia organikoan" hau da, diktaduran. Herria ez omen da gauza bere erabaki zentzuzkoak hartzeko. "Ordezkoen sistema" da diktadura. Euskal Elizak ez du sistema horretatik jo behar.

Herriaren **izenean** jokatzeko omen dute agintariak eta parlamentarioek "Demokrazia parlamentarioan": horretarako omen daude lau urtetik behin ospatzen diren Hauteskundeak! "Bitarteko sistema" da Demokrazia burgesa; baina hauteskundeetan bitartekoak direnak, parlamentuan edo agintean "herriaren ordezeko" bihurtzen dira sarritan. Euskal Elizak ez luke imitatu behar, Madrildik Euskal Herria datorren eta honi ezartzen zaion "demokrazia burges" horren sistema. Euskal kristau herriaren bitartekoak direnak, horren ordezeko bihurtzeko arriskua dute: Ordezko, Jainkoaren aurrean, eta ordezeko, Madrilen.

Herriaren **tartean** nahi ditu etengabe bere gidariak eta agintariak benetako "demokrazia herritarrak". Etengabeko partaidea da orduan herria, politikazko, gizarte-ko, herriko eta hauzoko arazo eta erabakietan. "Partaideen sistema" da oinarriko Demokrazia.

Eta Euskal Eliza herritarra, partaideen Eliza da (Iglesia de la participación). Jainkoagan eta kristau herriaren basean oinarrituko da etengabe Euskal Eliza herritarra.

Paulo Agirrebaltzategi